

0. PRODUKTUAREN AURKEZPENA

- **Zein da gure produktua?**

Gure ideia denda edo zentro bat irekitzea da, non produktu ekologikoak saltzen diren eta hauen inguruan klaseak eta informazioa eskaintzen diren, beraz gure helburua produktu ekologikoen sustapena bultzatzea da baita hauen inguruko ezagutza gure ingurukoei jakinaraztea.

- **Zertan datza sustapen hori?**

Gaur egun indarrean dagoen kezka bat osasuna da. Umeak gaixotasun eta pisu gehiegirekin egoteak kezkatzen du gizartea, baina gehienetan gutxiago jateaz edo kirola egiteaz aparte ez dugu beste soluziorik ezagutzen. Produktu ekologikoak dira dendetan jarri berri diren osasun txar bat ez izateko nolabaiteko irtenbideak. Gero eta pertsona gehiago ari dira orain produktu ekologikoei buruz informazioa bilatzen eta haien jakinaren gainean ipintzen. horregatik gure proiektua ederki etorriko zaio bere osasuna zaindu nahi duen eta horri buruzko informazioa nahi duen edonori.

- **Ze zerbitzu eskaintzen ditugu?**

Gure produktuak lehengaiez aparte, (irina, frutak, barazkiak, letxuga, gurina...) produktu landuak ere izango dira, lehengai ekologikoekin eginak izan direnak, hala nola pastelak, galletak... Elikadura onari buruzko txarrik eskainiko ditugu, orokorrean adin guztietako pertsonentzat zuzenduak izango direnak. Klaseak emango ditugu ere, saltzen ditugun produktu ekologikoak sukaldean erabiltzen irakasteko, baita horiekin zein janari mota egin daitezkeen erakusteko. Gainera, nutrizionista bat izango dugu, denon eskura, edozein pertsonari laguntzen ahaleginduko dena, eta bere osasunaren berri eman diezaiokeena ere, bakoitzarentzat zer den ona eta zer ez jakinaraziz.

